

Maite bai, erabili ez

EUSKO JAURLARITZAK argitaratutako *Euskal iritziz publikoaren urtekaria 2010* txostenean ageri denez, EAEko biztanleen %54arentzat euskara da hizkuntza nagusia. %85aren ustez, euskara jakiteak aukera gehiago eskaintzen ditu eta %45aren iritziz, euskara hitz egiteak prestigioa ematen du. %82ak ez luke nahi euskara galtzea eta %11ri ez lioke axolako. %86ak dio hizkuntza guztiak direla garrantzitsuak eta neurriak hartu behar direla horiek salbatzeko. Sarri gertatu ohi da herritarren usteak eta sinesmenak era batekoak izatea eta gero horien islarik ez izatea eguneroan. Txosten berean datoz datu

hauek ere: %77ak familian gaztelania hutsean edo ia beti gaztelaniaz hitz egiten du. Euskara hutsean %11 aritzen da. %76ak gaztelania darabil lagunekin eta %9ak egiten du batik bat euskaraz. Usteak eta egunerokoa ez datoz bat. Dena dela, bada lehen aipatutako usteekin alderatuz belarriko mina egiten duen datu bat: %48aren ustez, munduan hizkuntza bakarra erabiltzea litzateke onena eta kontrakoa uste du %42ak.

'La Vanguardia' katalanez

ORAIN ARTE gaztelaniaz baino ez da argitaratu *La Vanguardia* egunkaria,

200.00 ale egunero. Aurreikusia dago irakurleen erdiak katalanezko bertsiora pasako direla. *La Vanguardia*ren katalanezko bertsioa kontuan hartuta, bost dira Katalunian egunero katalanez inprimatzen diren egunkariak: *Avui*, *El Punt* eta *Ara* sortu berria (2010eko azaroan lehen zenbakia), eta *El Periódico de Catalunya*ren katalanezko edizioa (1997. urteaz geroztik eta 181.000ko tiradarekin).

BAHEA

Bea Sallaberryk *Han eta Hemen* blogean esanak: "Alta, lehen kontestu horietan, belaunaldiz belaunaldi, lortu zen transmizioa.

Transmititzea zerbait zabala eta osoa, bere baitan biltzen dituen hizkuntza bera, identitate bat, ikusmolde, pentsamolde eta egimoldeak, errepresentazio eta imaginarioak ere. Guztiak, interdependentsia hertsia batean. Transmisioa agian ez zen izanen lehen ardatza, orduan ez baitziren horretaz bereziki kezkatuak, gutxi eskolatuak edo jantziak (zentzu modernoan) eta horretarako antolatuak batere, baina burutzen zen.

Gaurkoan antolatuak eta eskolatuak gara eta horren guziaren kontzientzia badugu, hala ere, zerbaitean huts egiten dugulako inpresioa dut. Gaurkoan galtzen ari garen partida bat delarik, orduan lortzen zen hori. Nola demontre gauzatzen zen orduan? Nola egin orduko emankortasunera hurbiltzeko?"

Nila Vigil hizkuntzalari peruarra da. Hizkuntzan purista izatea arrazista izatea den galderaren inguruan egin du hausnarketa: "Arrazismoa arrazagatik diskriminazio gisa ulertzen bada, eta adibidez, ama hizkuntza gaztelania ez daukaten indigenak hizkuntza 'gaizki erabiltzen' dutelako diskriminatzen baldin badira, hori arrazismoa da. Talde batek darabilen gaztelaniari 'motoso' deitzea eta diskriminatzea, arrazista da, noski".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**Pasaia eta Lezoren borondatea errespetatu**

Beste behin ere, Pasaia kanpo portuaren inguruan eztabaida piztu da. Eta eztabaida piztu da, hiru aste lehenago sinatutako akordio baten bidez demonstratu nahi izan denean proiektua "atzera bueltarik gabea" dela eta "batasuna" dagoela Sustapen Ministerioaren, Lakuaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaia Portu Agintaritzaren artean. Espainiako Ingurumen Ministerioak txostena egin du esanez proiektua "ekonomikoki sostengaezina" dela eta kalteak itzulezinak direla. Erreakzioak berehalakoak izan dira. Alde batetik, Portu Agintaritzak esan du egungo proiektua ezin dela oraingo terminoetan mantendu. Bestetik, Aldundiak, EAJK, dio "planaren osasuna inoiz baino indartsuagoa" dela.

Dena den, badaude beste eragile batzuk (udaletakoak, politikoak, sindikalak, sozialak...) herri borondatea ordezkatzeko dutenak, eta Portu Agintaritzatik, nahiz Aldunditik eta Lakuatik ez zaie kasurik egin. Pasaia eta Lezoko udalak, talde politikoez eta sindikatu abertzaleek, elkarte sozialek eta ekologistek... urteak daramatzate plan horien kontra egiten, ekonomia, ekologiarik eta gizartearen ikuspuntutik sostengaezina direlako. Ministerioaren txostenak arrazoi eman die horiei guztiei. Are gehiago, irtenbide alternatiboak proposatu ditu, horietako batzuk Pasaia eta Lezoko herri eragileek lehenik aurreikusitakoak. Ikuspuntu ekologikotik garbi dago kanpo portuaren proiektua ez dela bideragarria. Eta ikuspuntu ekonomikoari dagokionez, Euskal Herriak Bilbo eta Baiona bezalako bi portu estrategiko baditu, ez dago inolako justifikazio ekonomikorik Pasaian beste portu bat eraikitzeko. Eta gutxiago krisi garaietan. Larria da EAJK modu irmoan apustu hori mantentzea. Pasaia eta Lezoko herri borondatea errespetatzea, horrexek izan behar luke guztion apustua.

Juan Mari Arregi